



KULTURA SAILA

Kultura, Gazteria eta
Kirol Sailordetza
Gazteria eta Gizarte Ekintza
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Cultura,
Juventud y Deportes
Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria

Elvillar

- ✓ **Lekua:** Bilar/Elvillar (Araba) <http://www.turismoa.euskadi.net>
- ✓ **Lan-mota:** Arkeologia
- ✓ **Helburua:** Antzinako galtzada ikertzeko eta berreskuratzeko lanetan laguntzea
- ✓ **Egunak:** uztailaren 1etik 14ra // uztailaren 17tik 30era
- ✓ **Adina:** 15-17
- ✓ **Plazak:** 20
- ✓ **Mota:** Estatu-mailakoa
- ✓ **Hizkuntza:** Euskara eta gaztelania
- ✓ **Kuota:** 72€

UDALERRIAREN DESKRIBAPENA

Mendi-mazelan kokatuta egoteak garai batean izan zen gotorlekua gogorarazten du. Antzina, "El villar de La guardia" zuen izena, eta, Erdi Aroan, eskualdeko biztanlerik eta jarduerarik gehien zeukan herrietako bat zen.

Bilarrek gaur egun 368 bat biztanle ditu. Arabako Errioxako eskualdean dago, eta bertako biztanleen ekonomia-jarduera nagusia mahasgintza da.

Urrutitik begiratuta, **Jasokundeko Andre Mariaren parrokia-eliza** ikusten da, antzinako gotorlekuaren gainean eraikia. Eliza barruan XVI. Mendeko erretaula nabarmentzen da, haren irudien adierazgarritasunagatik.

Kaleetan zehar hainbat Jáuregui aurkituko ditugu, eta haietatik bat azpimarratu beharra dago: **Indianoaren etxea**, armarriz, balkoi artísticos eta burdin hesiz hornitua. Plaza nagusia topaleku egokia da udako arratsalde lasaiak emateko.

Ibilaldi bat ere egin daiteke "La Hetxizera"-ren trikuharriraino. Eraikuntza megalitiko hori, dirudienez, panteoi kolektibotzat erabili zen. Elezaharrak dioenez, sorgin bat bizi izan zen bertan; mitologiako antzinako pertsonaien arrazakoa omen zen, Euskal Herriko beste leku batzuetako jentilen antzera.

LANAREN DESKRIBAPENA

Kantabriako mendilerroa zeharkatzen duten Erdi Aroko erromes-bide zaharrak igarotzen dira Bilarretik. Inguruetan, oraindik ere ikus daitezke **erromatarren garaikoa izan daitekeen antzinako galtzada** baten aztarnak ere, harlauza handiek mugatzen duten galtzadaren aztarnak, hain zuzen. Auzolandegi honen helburua galtzada hori aztertzen eta berreskuratzen hasteko beharrezko lanak egiten hastea da.

Auzolandegian parte hartzen duten boluntarioek **garbiketa eta indusketa lanak** egiten lagunduko dute Bilarretik Kripanera doan **antzinako galtzadaren** zatian. Beti ere arkeologo baten gidaritzapean arituko dira.

ANIMAZIO-EKINTZAK

Animazio-taldeak zenbait ekintza prestatuko ditu partaideen arteko harremana sendotzeko, eta eskualdeko kultura eta ohiturak ezagutarazteko (kirol-jarduerak, jolasak, txangoak, kultur bisitaldiak...).. Animazio-taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak. Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiak parte hartuko dute.

AUZOLANDEGIA ETA LOTAKO TOKIA NON

Auzolandegia non: Bilarren (Elvillar), Arabako Errioxa (Araba); Biasteri/Laguardiatik (eskualdeko hiriburua da) 6,5 km-ra, eta Logroñotik 17 km-ra dago.

Lotako tokia non: Udalaren instalazioetan. (Literak eta koltxoiak jarriko dira.)

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKOAK

- Lo egiteko zakua
- Burkoa (behar izanez gero)
- Lanerako arropa eta eskularruak. Arropa freskoak baina gorputza eguzkitik ahalik eta gehien babesten dutenak.
- Eguzkitarako txanoa edo kapela
- Eguzkitik babesteko krema
- Berokiren bat eta euritarako arropa (badaezpada ere)
- Mendirako eta kiroletako oinetakoak
- Bainujantzia
- Bizkar-zorro edo motxila txikia, txangoetarako

NOIZ BERTARATU

Txanda bakoitzaren lehen egunean, **18:00etan, Bilarko udaletxean**. Ordu horretarako iritsi ezin denak, aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

Auzolandegira eraman beharreko agiriak:

- Nortasun agiria, atzeritarraren txartela edo pasaportea
- Osasun-txartela

AUZOLANDEGIA NOIZ AMAITZEN DEN

Auzolandegia gosaldu ondoren amaituko da azken egunean, goizeko 9:00etatik 10:00etara bitartean.

Autobusez, Logroñotik Autobusak

Autobus-geltokia: Poeta Prudencio 26, LOGROÑO Tf.: 941 23 59 83

Línea: 40, Logroño – Elvillar/Bilar
Enpresa: Autoyón S.L. Tf.: 945 60 12 04
Ordutegia: 13:30 y 20:15 (lanegunetan)
Bidaiaren iraupena: ordubete, gutxi gorabehera.

Billar/Elvillar mapan

Ezagutu Billar/Elvillar, nola iritsi, helbide interesgarriak...

ASEGURUA

Gazte guztiek **istripuetarako eta erantzukizun zibileko aseguru bana** izango dute. Gaixotasun berezirik edo ezgaitasunik izanez gero, izena emateko orrian zehaztu behar da edo **Eusko Jaurlaritzari jakinarazi** behar zaio, gazteak behar dituen estaldurak aseguru-polizan sartu ahal izateko.

Gazte bakoitzak bere **osasun-txartela** ekarri behar du auzolandegira

PLAZARI UKO EGITEA ETA KUOTA ITZULTZEA

1.- Norbaitek adjudikatutako plazari **uko egin nahi izanez gero**, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzari (gazteria-auzolandegiak@ej-gv.es) jakinarazi beharko dio lehenbailehen, datu hauekin batera: izen-abizenak, NAN zk., auzolandegiaren izena eta datak. Gainera, **uko egiteko orria** behar bezala beteta eta sinatuta bidali beharko du, NANaren kopiarekin batera: Eusko Jaurlaritzak. Kultura Saila. Gazteria Zuzendaritza. Auzolandegiak. Donostia-San Sebastián 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

2.- **Ordaindutako kuota berreskuratu ahal izateko**, Euskadiko auzolandegien kasuan bete behar diren baldintzak, epeak eta aurkeztu behar diren agiriei buruzko informazio guztia www.gazteaukera.euskadi.net webgunean duzu, honako atal honetan: **Auzolandegiak – Uko egitea eta kuota itzultzea - Euskadi**.

HARREMANETARAKO TELEFONOAK ETA E-MAILA

Eusko Jaurlaritzak. Gazteria Zuzendaritza:

Doako tf.: 900 33 88 22 (astelehenetik ostiralera: 9:00 - 18:00)
e-posta: gazteria-auzolandegiak@ej-gv.es

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehenago, komenigarria da auzolandegietako arauak ezagutzea. Ikusi www.gazteukera.euskadi.net webgunean (ikusi Auzolandegiak - Arauak).